

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

130/2026 Foru Agindua, martxoaren 4koa. Deialdia, Natura Ingurunearen Zuzendaritzara atxikitako Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1048.001) lehiaketa espezifikoko sistemaren bidez betetzeko

Natura Ingurunearen Zuzendaritzak Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko buruaren lanpostua behin betiko betetzeko eskatu du (kodea: 1048.001, Natura Ingurunearen Zuzendaritzari atxikia).

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 94. artikuluan ezartzen du funtzionarioentzako gordeta dauden lanpostuak lanpostu zerrendetan ezarritakoaren arabera beteko direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen lanpostu zerrendak ezartzen duenez, Natura Ondarearen Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1048.001) Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioek beteko dute lehiaketa bidez.

Aztertu da Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arauan ezarritakoaren arabera 67/2026 Kontuhartzailletza eta Kontrol Zerbitzuak emandako zenbakiko alde aurreko fiskalizazioko txostena.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Dei egitea Natura Ingurunearen Zuzendaritzara atxikitako Natura Ondarearen Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1048.001) lehiaketa espezifikoko sistemaren bidez betetzeko.

Bigarrena. Onespina ematea deialdia arautuko duten oinarriei eta parte hartzeko eskaera orriari (I. eta II. eranskinak).

Hirugarrena. Argitaratzea deialdi honen xede den lanpostuari esleitutako eginkizun eta egitekoen zerrenda (III. eranskina).

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan —urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik— xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 4a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR



I. ERANSKINA

NATURA INGURUNEAREN ZUZENDARITZARA ATXIKITAKO NATURA ONDAREAREN ZERBITZUAREN BURU LANPOSTUA (KODEA: 1048.001) LEHIAKETA ESPEZIFIKOKO SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

LEHENENGOA. - DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da Natura Ingurunearen Zuzendaritzara atxikitako Natura Ondarearen Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1048.001) lehiaketa espezifikoko sistemaren bidez betetzea.

BIGARRENA. - LANPOSTUAREN DESKRIAPENA:

Sailkapen taldea:	A
Sailkapen azpitaldea:	A1
Destino osagarriaren maila:	27
Berariazko osagarria:	58.482,90 €
Hizkuntza eskakizuna:	4, derrigortasun datarik gabe
Destino herria:	Vitoria-Gasteiz
Arduraldia:	Esklusiboa
Prestasuna:	120 ordu

HIRUGARRENA. - PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioa izatea, A1 titulazio azpitaldekoa, Administrazio Bereziko eskalakoa.

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza, edo ingeniari tekniko/gradua + Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari Masterra, edo baliokidea

Deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan behin betiko destinorik lortu ez izana, lehiaketa sistema, barne sustapen edo kanpoko hautaketa bidez.

LAUGARRENA. - PARTE HARTZEKO ESKAERA

Lehiaketan parte hartzeko eskaerak deialdi honen II. eranskinean jasotako eredu normalizatuan aurkeztu behar dira, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzenduta, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Elektronikoko Orokorrean (<https://egoitza.araba.eus>) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bulegoetako edozeinetan. Horretarako, 15 egun balioduneko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaeran honako hauek jarri behar dira:

- Deialdi honen hirugarren oinarrian eskatzen diren betekizunak betetzen direlako adierazpena.



b) Alegatzen diren merezimenduak. Merezimenduak ziurtagiri bidez egiaztatu behar dira, eta ezin da alegatu badaudela Arabako Foru Aldundiaren administrazio agiritegietan.

c) Norberaren gradu finkatua.

Ez da honako hauen ziurtagiririk aurkeztu beharko:

a) Arabako Foru Aldundiak aitortutako antzinasuna eta norberaren gradua.

b) Arabako Foru Aldundiko lanpostuetan egondako denbora, egindako lana baloratzeko.

Merezimenduak balioesteko erreferentzia data deialdia ALHAOn argitaratzen den eguna izango da. Ez dira kontuan hartuko eskaerak aurkezteko epearen barruan egiaztatzen ez diren merezimenduak, nahiz eta haien aipamena egin eskaeran, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoa.

Desgaitasunen bat duten funtzionarioek lehiaketan parte hartzeko eskaera orriarekin batera adierazi ahal izango dute eskatzen d(it)u(z)ten lanpostua(k) egokitzeko beharra.

Organo teknikoak beharrezko deritzon informazioa eskatu ahal izango dio interesdunari eskatu duen egokitzapenaz, bai eta eskumena duten organo teknikoaren irizpena ere lanpostu horren egokitzapenaren egokitasunari eta eginkizun eta egitekoekiko bateragarritasunari buruz.

BOSGARRENA. - ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAK

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak Arabako Foru Aldundiaren intraneten (Gurenet) emango du argitara onartuen eta baztertuen zerrenda, eta 3 egun balioduneko epea hasiko da, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko. Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzita - horrelakorik egonez gero-, argitara emango da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

SEIGARRENA. - LANPOSTUAK HORNITZEKO ORGANO TEKNIKOAK

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 104. artikulua onorioetarako, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak izendatutako organo tekniko batek baloratuko ditu merezimendu orokorrak eta espezifikak. Haren osatutako behin betiko zerrendarekin batera emango da argitara. Kideen inpartzialtasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna eta espezializazioa bermatuko dira, eta emakumeen eta gizonen arteko oreka ere bai, salbu eta horretarako ezintasuna behar bezala justifikatzen bada.

Lehendakariak, idazkariak eta hiru bokalek osatuko dute organo teknikoa.

Organo teknikoko kideetza norberaren izenean izango da beti; hau da, ezin daiteke besteren ordezkartzan edo besteren kontura jardun.

Organo teknikoko kideen egokitasuna eta gaitasuna bermatzeko, deialdia egiten duen erakundeak behar den guztia egingo du haiek deialdiaren xede den lanpostuko eginkizunen berri jakin dezaten.

Organo teknikoak ebatziko ditu arau hauek aplikatzerakoan sor litezkeen zalantza guztiak, bai eta aurreikusi gabeko kasuetan zer egin behar den ere.

Boto berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuak izango du kalitateko botoa.

Organo teknikoa ezin izango da eratu, ez lanean aritu gutxienez batzordeko hiru kide biltzen ez badira, titullarrak nahiz ordezkariak; gainera, batzordeburua eta idazkaria nahitaez egon behar dira bileran.



Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan jasotako egoeraren bat gertatuz gero, organo teknikoak kideek ezingo dute lan horretan jardun, eta deialdia egin duen agintaritzari horren berri eman beharko diote.

Gainera, izangaiek batzordekideak errefusatu ahal izango dituzte. Hautaketa prozesuko edozein unetan organo teknikoak jakiten badu izangairen batek ez duela betetzen deialdian ezarritako betekizunen bat edo gehiago, aldez aurretik interesdunari entzunda, izangai hori baztertu dezala proposatu beharko dio organo eskudunari eta eskaeran izangaia adierazitako oker edo faltsukeriak adierazi.

Organo teknikoak hautaketa prozesuko edozein unetan eskatu ahal izango ditu alegatutako merezimenduen balorazio prozesuaren edozein fasetan eragina duten jatorrizko agiriak.

Jarduteko prozedura une oro lotuko zaio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoari.

Organo teknikoak, lanpostuaren berezitasunen arabera, kanpoko aholkulariengana jo ahal izango du. Aholkulari horiek hautagaiak bete beharreko lanpostuetarako egokiak diren ala ez jakinaraziko dute soilik. Ez dute ez hizpiderik ez botorik izango ebazpen proposamenaren aurreko eztabaidetan.

ZAZPIGARRENA. - LEHIAKETA AURRERA ERAMATEA

Lehiaketak fase hauek izango ditu: A) Merezimendu orokorren fasea B) Merezimendu espezifikoaren fasea.

A) Merezimendu orokorrak

Fase horretan, gehienez, 13 puntu lortu ahal izango dira. Balorazioa honela egingo da:

1. Egindako lanaren balorazioa

Administrazio publikoetan egindako lanarengatik gehienez ere 4,25 puntu eskuratu daitezke, honako baremo honen arabera:

- 0,05 puntu, deituta dagoen lanpostuaren berdin-berdinak diren lanpostuetan jardundako hil oso bakoitzeko; gehieneko puntuazioa: 4,25.
- 0,035 puntu, buruzagitza lanpostuetan jardundako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta eginkizunak eta egitekoak funtsean bat badatoz deialdiko lanpostukoekin; gehieneko puntuazioa: 3,25.
- 0,025 puntu, deialdiaren gaia den lanpostuaren talde bereberre dagozkien lanpostuetan jardundako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta eginkizunak eta egitekoak funtsean bat badatoz deialdiaren gaia den lanpostua atxikita dagoen unitatean kudeatzen direnekin; gehieneko puntuazioa: 2,25.
- 0,010 puntu, deitutako lanpostuaren talde bereko lanpostuetan jardundako hilabete oso bakoitzeko; gehieneko puntuazioa: 1.

Aurreko c) eta d) apartatuak batuta ezin izango dira 2,25 puntu baino gehiago lortu.

2. Antzintasuna

Aintzat hartuko da administrazio publikoen zerbitzura egindakotzat aitorturiko antzintasuna. 3,5 puntu lortu ahaliko dira gehienez ere; hain zuzen ere, 0,012 puntu lanean egindako hilabete oso bakoitzeko.

3. Norberaren gradu finkatuaren balorazioa

Gradu finkatuarengatik 1,5 puntu emango dira gehienez ere, honako honen arabera:



- Eskatutako lanpostuarena baino bi maila altuagoa edo are altuagoa: 1,5 puntu
- Eskatutako lanpostuarena baino maila bat altuagoa: 1,25 puntu
- Eskatutako lanpostuaren maila berdina: puntu 1
- Eskatutako lanpostuarena baino maila bat baxuagoa: 0,75 puntu
- Eskatutako lanpostuarena baino bi maila baxuagoa: 0,50 puntu

4. Titulu akademikoak

Eskatzen den lanpostua lortzeko beharrezkoak direnez bestelako ikasketa titulu ofizialak baloratuko dira, deialdiaren xede den lanpostuaren unitatearen eginkizun eta egitekoekin funtsean duten lotura kontuan hartuta; 2 puntu emango dira gehienez ere, baremo honen arabera:

- Doktore titulua: 1,5 puntu.
- Lizentzia, ingeniartza, arkitektura edo gradu gehi master baliokidea: 1,25 puntu.
- Ingeniartza tekniko, unibertsitateko diploma, arkitektura tekniko edo gradu baliokidea: puntu 1.
- Masterrak, diplomak eta berezko unibertsitate tituluak, 300 ordukoak edo handik gorakoak: 0,75 puntu.
- Masterrak, diplomak eta berezko unibertsitate tituluak, 200 ordukoak edo handik gorakoak: 0,5 puntu.

Ez dira baloratuko lanposturako nahitaezkoa den titulua lortzeko behar diren titulu apalagoak, ez eta merezimendu gisa baloratutakoak ere.

5. Prestakuntza ikastaroak

Eskatzen den lanpostuaren berezko eginkizunekin edo haietan jarduteko eskatzen diren trebetasunekin lotutako gaietan jasotako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak baloratuko dira.

0,50 puntu emango da 200 ordutik gorako ikastaroengatik, eta 0,25 puntu 100 ordutik gorakoengatik.

Ikastaroen ziurtagirietan ordu kopurua, kredituak edo ECTS kredituak zehaztu beharko dira; bestela, ez dira baloratuko.

Iraupena kreditutan adierazten denean, kreditu bakoitzeko 10 ordu baloratuko dira, beste zehaztapenik ez dagoenean.

ECTS kredituak adierazten badira, kreditu bakoitzeko 25 ordu baloratuko dira.

Informatikan ez dira baloratuko ofimatikako oinarritzko ikastaroak, ez eta organo teknikoak lanerako oinarritzkotzat jotzen dituenak ere. Arabako Foru Aldundiaren berezko informatika aplikazioetako prestakuntza ere ez da baloratuko.

Ez dira baloratuko errepikatutako ikastaroak, ez eta segurtasuneko oinarritzkoak ere.

Ez dira baloratuko bukatu gabeko ikasgaiak, kredituak eta ikastaroak.

Atal honetan puntu 1 lortu ahal da gehienez ere.

6. Hizkuntzak

Ondoko taula honen arabera baloratuko da Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen ezagutza (EAEn ofizialak direnak izan ezik). Atal honetan, gehienez ere, 0,75 puntu lortu ahal izango da:



- B-2: 0,25 puntu
- C-1: 0,50 puntu
- C-2: 0,75 puntu

B) Merezimendu espezifikoak

Bi zati izango ditu:

1. zatia: lortu nahi den lanpostuko jardunarekin loturiko proba teoriko-praktiko bat egin beharko da. Probaren zati bat edo batzuk ahoz azaldu beharra ere egon daiteke. Zati honetan 13 puntu lor daitezke gehienez ere.

2. zatia: jokabideei buruzko elkarriketa egituratua egingo da, hautagaia lanpostuak eskatzen duen gaitasun profiler, agintzeko eta pertsonak zuzentzeko gaitasunetara eta antolaketako gaitasunetara egokitzen den neurtzeko. Zati honetan 13 puntu lor daitezke gehienez ere.

Elkarriketa hori egiteko baino ez, balorazio batzorde bat eratuko da. Bi kidek osatuko dute gutxienez, eta elkarriketak egiteko homologazioa eduki beharko dute. Emandako puntuazioa organo teknikoari aurkeztuko zaio eta hark guztirako puntuazioari erantsi beharko dio. Haren osaera onartutakoen behin betiko zerrendarekin batera emango da argitara.

Destinoa esleitzeko lortu beharreko gutxieneko puntuazioa:

Gutxienez 2,50 puntu lortu beharko dira merezimendu orokorren fasean, 6,50 puntu berriazko merezimenduen lehenengo zatian adierazi den ariketan, eta 6,50 jokabideei buruzko elkarriketa egituratuan.

ZORTZIGARRENA. - EUSKARAREN EZAGUTZA

Euskara merezimendu gisa baloratzeari dagokionez, baremo honen arabera egingo da, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz:

- 1.HE: gehienez lortu ahal den puntuazioaren ehuneko 5.
- 2.HE: gehienez lortu ahal den puntuazioaren ehuneko 6,25.
- 3.HE: gehienez lortu ahal den puntuazioaren ehuneko 11.
- 4.HE: gehienez lortu ahal den puntuazioaren ehuneko 13,75.

IVAPen ziurtagiriaren bidez egiaztatu ahal izango da, edo haren baliokideren baten bidez, eskatutako lanpostuko hizkuntza eskakizunaren berdina edo hura baino handiagoa edo txikiagoa dela.

BEDERATZIGARRENA. - BERDINKETA, LEHIAKETA OSOKO PUNTUAZIOAN

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek baliatuko dira puntuazioa ebazteko:

- a) Lehenetsuna emango zaie emakumeei, baldin eta dagokion azpieskalan eta lanpostuaren mailan, hau da, lanpostuari esleitutako destino-osagarrian, emakumeen ordezkaritza ehuneko 40 baino txikiagoa bada, ez bada, behintzat, beste hautagai batzuek sexu bereizkeriazkoak ez diren zioak dituztela neurri hau ez aplikatzeko, hala nola enplegu sustapenerako zailtasun bereziak dituen kolektiboren batekoa izatea.



- b) Merezimendu espezifikoen faseko gehieneko puntuazioa, handienetik txikienera. Hala ere berdinketa badago, merezimendu orokorren baremoan ezarritako gehieneko puntuazioaren arabera, handienetik txikienera. Merezimenduek puntuazio berdina ezarrita badute, deialdiko oinarrietan adierazitako hurrenkeran.
- c) Hala ere berdinketa badago, honako irizpide hauetara joko da bi kasuetan, hurrenkera honetan: lehiaketan parte hartzerakoan duen eskala, azpieskala eta klasean karrerako funtzionario gisa antzinasun handiena duena; karrerako funtzionario gisa antzinasun handiena duena; azkeneko behin betiko lanpostuan antzinasun handiena duena, eta administrazioan antzinasun handiena duena.
- d) Hala ere berdinketa ebazteko irizpide gehiago behar izanez gero, organo teknikoak zehaztuko du merezimenduaren printzipioari jarraikiz.

HAMARGARRENA. - EMAITZAK ARGITARATZEA

Interesdunei merezimenduen balorazioa jakinaraziko zaie eta erreklamazioak aurkezteko 10 egun balioduneko epea izango dute, jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

HAMAIKAGARRENA. - DESTINOA ESLEITZEA

Organo teknikoak, aurkeztu zaizkion erreklamazioak ebatzi ondoren, izendapen proposamena egingo dio lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari.

Esleipendunak lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko du, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du, egoera hauetan izan ezik: lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen deialdi publikoaren bitartez beste destino bat lortzen badu; gerora sortutako ezgaitasunagatik; zerbitzu aktiboa ez den beste egoera batera pasatzen bada, edo behar bezala justifikatutako eta deialdia egiten duen organoak ontzat emandako bestelako ezohiko zioengatik.

HAMABIGARRENA. - IZENDAPENA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA

Esleipen ebazpenak, zeina ALHAOn argitaratuko baita, jatorrizko lanpostua utzi eta esleitutako lanpostuaz jabetzeko data zehatza zehaztuko du.

Esleipen ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea badakar, lanpostuaz jabetzea esleipen ebazpenean jasotzen den egunaren hurrengo hiru egun baliodunen barruan egin beharko da.

Lanpostuaz jabetzea langile funtzionarioen baimen, lizentzia, opor edo bestelako egoerak amaitu arte atzeratuko da, baldin eta funtzionario horiek zerbitzu aktiboari eusten badiote eta egoerak zerbitzua benetan ematea galarazten badu. Salbuespenez, eta behar bezala arrazoitu eta justifikaturiko arrazoiengatik, organo eskudunak horien gozamina etetea erabaki dezake.

Desgaitasunen bat duten funtzionarioek lehiaketan parte hartzeko eskaera orrian bertan adierazi ahal izango dute eskatzen duten lanpostua egokitzeko beharra. Organo teknikoak beharrezko deritzon informazioa eskatu ahal izango dio interesdunari, elkarriketa pertsonal batean, eskatu duen egokitzapenaz; eskumena duten organo teknikoaren irizpena ere eskatu ahal izango du lanpostu horren egokitzapenaren egokitasunari eta eginkizun eta egitekoekiko bateragarritasunari buruz.



HAMAHIRUGARRENA. - AURKARATZEAK

Oinarri hauek, deialdia eta hartatik eta Organo teknikoaren jardunetik sortzen diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasu eta moduetan.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

II. ERANSKINA / ANEXO II ESKABIDEA / SOLICITUD

Deialdia / Convocatoria

NAN / DNI		Pasaportea/Pasaporte	
1. abizena / 1º apellido	2. abizena / 2º apellido	Izena / Nombre	
Helbidea / Domicilio			
Herria / Población	Lurraldea / Provincia	PK /CP	
Tel. mugikorra / Tel. móvil		2. Tel.	
E-posta / Correo electrónico			

Adierazi gurutze batez aukera egokia / Señale con una cruz la opción que proceda:

Egiaztatzen duen Hizkuntza Eskakizuna / Perfil Lingüístico que acredita:

- ☐ HE1 edo baliokidea PL1 o equivalente
 ☐ HE2 edo baliokidea PL2 o equivalente
 ☐ HE3 edo baliokidea PL3 o equivalente
 ☐ HE4 edo baliokidea PL4 o equivalente

Azterketak zein hizkuntz ofizialetan egin nahi dituen/Idioma oficial en el que desea realizar los exámenes:

- ☐ Euskara / Euskera
 ☐ Gaztelania / Castellano

EGIAZTATZEN DIREN MEREZIMENDUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE MÉRITOS QUE ACREDITA

BESTE ADMINISTRAZIOETAKO LANPOSTUETAN EGINDAKO LANA

DESEMPEÑO DE PUESTOS DE TRABAJO EN OTRAS ADMINISTRACIONES

Soilik balioetsiko da egitekoen ziurtagiria aurkezten bada / Solamente se valorará si se aporta el certificado de funciones

- 1
 2
 3

GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUA. FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA. ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU
ADMINISTRAZIOAREN SAILA
SERVICIO DE RECURSOS HUMANOS. DIRECCIÓN DE FUNCIÓN PÚBLICA. DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COMERCIO, TURISMO Y
ADMINISTRACIÓN FORAL.
Probintzia plaza 14 – 3.a / Plaza de la Provincia 14 – 3º. 01001, Vitoria - Gasteiz

IKASKETA TITULUAK / TÍTULOS ACADÉMICOS	
1	
2	
3	

PRESTAKUNTZA IKASTAROAK / CURSOS DE FORMACIÓN	ORDU KOP. Nº HORAS	NOIZ EGINA FECHA DE REALIZACIÓN
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		

EUROPAR BATASUNEKO HIZKUNTZAK, EAE-KO OFIZIALAK IZAN EZIK IDIOMAS DE LA UNIÓN EUROPEA CON EXCEPCIÓN DE LOS OFICIALES DE LA C.A.V.		
1	2	3

Eskaera honen goiko aldean zehaztutako eskatzaileak eskatzen du adierazitako hautaprobetan onartua izatea, eta aitortzen du hemen jarritako datu guztiak egiazkoak direla, eta betetzen dituela parte hartu nahi duen probetan onartua izateko bete behar diren baldintza guzti-guztiak.	La/el solicitante, cuyos datos personales figuran en el encabezamiento de esta instancia, solicita ser admitida/o a las pruebas a que se refiere la presente solicitud, declara que son ciertos todos los datos consignados en esta instancia y que reúne todos y cada uno de los requisitos exigidos para ser admitida/o en las pruebas selectivas correspondientes
Vitoria – Gasteiz, (Data / Fecha).....	IZENPEA / FIRMA

Oharra: Eskatzaileak emandako datu pertsonalak LANGILEEN fitxategian sartuko dira (Arabako Foru Aldundiaren titulartasunekoa da fitxategi hori), eta babes-maila egokiarekin tratatuko dira. Bat etorriaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) xedatutakoarekin, onartua izatea eskatzen duen prozezu honen kudeaketarako baino ez dira erabiliko.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu, betiere, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Bulegora zuzenduz, Probintzia plaza, 5, PK 01001 Gasteiz - Gasteiz (Araba). Informazio gehiagorako:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Nota: Los datos de carácter personal suministrados por la/el solicitante serán incorporados al fichero de PERSONAL, titularidad de la Diputación Foral de Álava, y serán tratados con el grado de protección adecuado, únicamente a efectos de gestión del presente proceso en el que solicita ser admitida/o, conforme a lo dispuesto por el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD).

Podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información:

<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>



1048 - INGURUMEN KALITEAREN ZERBITZUAREN BURUA

EGINKIZUNAK

Probintziarentzat interesgarriak diren obra hidraulikoen planak eta proiektuak egitea eta gauzatzea, bai eta horiek zuzendu eta koordinatzea ere, arlo horretako araudia eta legezko betebeharrak eta Sailaren helburuak betearazteko.

Aldundiak ingurumen-prebentzioaren, hondakinen kudeaketaren eta jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen arloan dituen eskumenak eta jarduerak koordinatzea eta kudeatzea.

ZEREGINAK*

Zerbitzuaren buruari lotutako eginkizunak:

- Unitateak antolatzeke modua zehaztea, Egitura Dekretuak egiteko Gidan eta hura garatzen duten arauetan xedatutakoaren arabera, gainerako administrazio unitateekin modu harmonikoan funtzionatzeko neurri egokiak ezarrita.
- Bere Zerbitzuan integratutako unitateen Kudeaketa Planak edo Ekintza Plan Operatiboak egitea. Plan horietan, gutxienez, gauzatu beharreko helburuak, jarduteko irizpideak, esleitutako baliabideak, epeak eta ebaluazio irizpideak ezarriko dira, eta unitatearen barne ebaluaziorako neurriak ezarriko direla bermatuko da, aldez aurretik ezarritako helburu horiei dagokienez.
- Gobernu organoek hartutako erabakiak eta egintzak betearaztea.
- Finkatutako helburuak lortzeaz arduratzea.
- Beren nagusia den zuzendariari laguntza teknikoa ematea, eta hala dagokionean, saileko foru diputatu titularrari, kasuan kasuko unitatearekin loturiko gaietan.
- Lan prozeduren diseinuaz, jarduketa irizpideez, ezarpenaz eta ebaluazioaz arduratzea.
- Bere eskumen arloan, Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko araudia eta gidalerroak betetzeaz arduratzea.
- Zerbitzuari esleitutako langileen buru izatea, besteak beste, honako eginkizun hauek betetz:
 - Unitateko langileen edozein eskaera jakinaraztea, oporrei, baimenari, edozein motatako eskubide ekonomikoaren aitortpenari eta antzeko gaien buruz.
 - Ordutegia betetzen den kontrolatzea.
 - Baimenak kontrolatzea.
 - Egitekoak eta lanak banatu eta gainbegiratzea, eta haien erantzukizuna izatea.
- Zuzendaritzaren aurrekontuaren aurreproiektua egiten laguntzea.
- Urteko aurrekontua kudeatzea eta unitatearen jardueren memoria egitea.
- Unitateko bulegoen barne araubideari arreta eskaintzea eta zaintzea, eta bertako ondasun higigarriak eta higiezinak administratzea eta zaintzea.
- Ahalik eta laguntzarik handiena ematea Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauari loturiko eginkizunak bere gain hartzen dituen saileko administrazio unitateari.
- Arautegi organikoetan eta Foru Aldundiaren erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak.

Lanpostuaren eginkizun espezifikoak:

- Sailaren jarduerak zuzentzea probintziarentzat interesgarriak diren obra hidraulikoen proiektuetan.
- Arlo hidraulikoan jarduteko irtenbide zehatzei buruz erabakitzea, alderdiei entzun ondoren eta teknika oneko erregelamenduen eta jarduketaren arabera.
- Obra hidraulikoen arloko jarduketak aztertu, aholkatu eta kudeatzea.
- Proiektu eta obra hidraulikoei dagokienez, gai hidraulikoen inguruko jardunak planifikatzea eta programatzea.
- Beste administrazio batzuekin arlo hidraulikoko helburu komunak lortzen parte hartzea.



- Etorkizuneko obretan egingo diren jardunak proposatzea eta antolatzea.
- Jarduera sailkatuen arloko jarduketan egokitasuna gainbegiratzea.
- Hondakinen kudeaketaren arloko jardueren egokitasuna gainbegiratzea.
- Soinu-kalitatea eta zarata kudeatzeko planak eta sistemak koordinatzea eta zuzentzea.
- Hierarkian gorago daudenek agintzen dioten bere profil profesionaleko beste edozein egiteko burutzea.

(*) Agiri honetan zehaztutako egitekoak bat datoz lanpostuaren oinarri funtzionalarekin. Hala ere, hierarkian gainetik daudenek hala aginduz gero, beste hainbat egiteko ere egin beharko dira, baldin eta eremu funtzional eta kategoria berekoak badira.